Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko otsailaren 1a, asteazkena — 21 — Miércoles, a 1 de febrero de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## EIBARKO UDALA

*Iragarkia*

Ez da inolako alegaziorik aurkeztu 2022ko azaroaren 2ko Udalbatzak Bide publikoa mahai eta aulkiekin, saltzeko produktuekin edo elementu lagungarriekin okupatu eta erabiltzeari buruzko Udal-Ordenantzari egindako aldaketen jendaurreko epean; beraz, aldaketok behin betiko onetsitzat jotzen dira eta Ordenantzaren testu osoa ematen da argitara, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikulua aplikatuz.

Eibar, 2023ko urtarrilaren 4a.—Jon Iraola Iriondo, alkatea.

(145)

ORDENANTZAREN TESTU BATEGINA

*Bide publikoa mahai eta aulkiekin, saltzeko produktuekin edo elementu lagungarriekin okupatu eta erabiltzeari buruzko udal-ordenantza.*

Arrazoien azalpena.

Atariko titulua. Definizioak.

Lehen titulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Aplikazio-eremua.

2 artikulua. Helburua.

3. artikulua. Baimenak.

Bigarren titulua. Terrazak.

4. artikulua. Kokapena.

5. artikulua. Instalazio-motak eta okupatutako lekua mugatzea.

6. artikulua. Altzarien ezaugarriak.

7. artikulua. Eguzkitakoak eta eguzki-oihalak.

8. artikulua. Bestelako elementuak:

9. artikulua. Zarata eta ordutegia.

10. artikulua. Erantzukizun zibileko asegurua.

11. artikulua. Altzariak kentzea eta garbiketa.

Hirugarren titulua. Jarduera komertzialei lotutako bide publikoak okupatzea.

12. artikulua. Artikuluen salmenta automatikoa eta joko-makinak.

13. artikulua. Merkataritza-establezimenduak hedatzea.

Laugarren titulua. Lizentziak izapidetzea eta kudeatzea.

14. artikulua. Organo eskuduna.

15. artikulua. Prozedura.

16. artikulua. Ebazpena.

17. artikulua. Ezeztapena.

## AYUNTAMIENTO DE EIBAR

*Anuncio*

No habiéndose presentado alegación alguna dentro del plazo de exposición pública de las modificaciones acordadas por el Pleno de 2 de noviembre de 2022 a la Ordenanza Municipal sobre el Uso y Ocupación de la Vía Pública con Mesas y Sillas, Productos en Venta u otros Elementos Auxiliares; se consideran definitivamente aprobadas y se hace público el texto íntegro de la ordenanza en aplicación del artículo 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Eibar, a 4 de enero de 2023.—El alcalde, Jon Iraola Iriondo.

(145)

TEXTO REFUNDIDO DE LA ORDENANZA

*Ordenanza municipal sobre el uso y ocupación de la vía pública con mesas y sillas, productos en venta u otros elementos auxiliares.*

Exposición de motivos.

Título preliminar. Definiciones.

Título primero. Disposiciones generales.

Artículo 1. Ámbito de aplicación.

Artículo 2. Objeto.

Artículo 3. Autorizaciones.

Título segundo. Terrazas.

Artículo 4. Ubicación.

Artículo 5. Delimitación del espacio ocupado.

Artículo 6. Características del mobiliario.

Artículo 7. Sombrillas y toldos.

Artículo 8. Otros elementos.

Artículo 9. Ruido y Horario.

Artículo 10. Seguro de responsabilidad civil.

Artículo 11. Retirada del mobiliario.

Título tercero. Ocupaciones de la vía pública vinculada a actividades comerciales.

Artículo 12. Venta automática de artículos y máquinas recreativas.

Artículo 13. Extensiones de establecimientos comerciales.

Título cuarto. Tramitación y gestión de las licencias.

Artículo 14. Órgano competente.

Artículo 15. Procedimiento.

Artículo 16. Resolución.

Artículo 17. Revocación.

EK\CV GAO-I-2023-00145

Bosgarren titulua. Ordenantza ez betetzea: arau-hausteak eta zehapenak.

18. artikulua. Lizentziarik gabeko instalazioak.

19. artikulua. Baimendutako elementuak edo azalera gainditzea.

20. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

21. artikulua. Zehapenak.

22. artikulua. Erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak.

23. artikulua. Prozedura.

ARRAZOIEN AZALPENA

Ordenantza honek arautzen ditu, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeak eta Administrazio Publikoen Ondarea arautzen duen araudiak –nagusiki 33/2003 Legeak osatzen duenak– ezarritakoarekin bat, hiriko espazio publikoan gaurdaino egin diren askotariko erabilerak, hiriko espazio publikotzat hartuta Udalaren jabari publikoko bide eta espazio guztiak, baita beste administrazio publiko batzuen jabarikoak edota titulartasun pribatukoak izanda ere herritar ororen erabilera publikoari atxikiak dauden udalerriko beste espazio guztiak ere.

Erregulazioaren helburua da espazio publikoak izan ditzakeen erabilera desberdinak ahalik eta modu argi eta soilenean arautzea eta, bereziki, espazio publikoaren aprobetxamendu berezia edo erabilera pribatiboa dakarten erabilerena, espazio publikoaren erabilera arruntaren (pertsona guztiei berdin baina modu desberdinean dagokienaren) babes handiagoa lortzeko.

Ordenantza honen xede diren baimenak emateko garaian Udalak bermatu beharko duen herritarren eskubide nagusia bide publikoa pertsona guztientzat irisgarria izatea izango da. Alde horretatik, bai ordenantza honek bai bere aplikazio-egintzek bereziki hartuko dituzte kontuan espazio publikoen irisgarritasunaren oinarrizko baldintzak arautzen dituzten indarreko arauak, oinarrian apirilaren 11ko Eusko Jaurlaritzako 68/2000 Dekretua dutenak (hiri-inguruetako, espazio publikoetako, eraikinetako eta informazio- eta komunikazio-sistemetako irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena), baita otsailaren 1eko VIV/561/2010 Ministro Agindua ere (espazio publiko urbanizatuek izaera irisgarria eta ez-diskriminatzailea izateko eta horiek erabiltzeko oinarrizko baldintzen dokumentu teknikoa garatzen duena).

Ordenantza honen beste printzipio gidari bat da Eibarko bide eta espazio publikoetan egiten diren erabilera guztiek, bereziek zein pribatiboek, udalak aurretiaz emandako ahalbidetze-titulua edo baimena izan behar dutela, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 84. artikuluak aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Azkenik, nabarmendu behar da ordenantza 2006/123/CE Zerbitzu Direktibak, zerbitzuak ezartzeari eta emateari buruzkoak, ezarritakoarekin bat etorriz egin dela. Horrela, Direktibaren eta bere transposiziorako proiektatzen diren arauen printzipioak eta gidalerroak errespetatzen dira. Baimentze-teknika mantentzen da Administrazio Publikoen Ondareari buruzko Legearen 6. eta 84. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, baita administrazioaren isiltasun negatiboa ere, Omnibus Legeak egiten duen 30/1992 Legearen 43. artikuluaren aldaketan ezarritakoarekin bat. Bereziki, arreta handia jarri da espazio publikoa beren zerbitzu-jardueraren funtsezko oinarri gisa erabiltzen duten zerbitzu-emaileei (ostalariei eta merkatariei) ahalik eta baldintza gutxien eskatzea bermatzeko, espazio publikoaren izaera mugatuaren eta eskasiaren funtsezko premisa, eman daitezkeen baimenen kopurua mugatzea dakarrena, gogoan

Título quinto. Incumplimiento de la ordenanza: infracciones y sanciones.

Artículo 18. Instalaciones sin licencia.

Artículo 19. Exceso de elementos o superficie sobre lo autorizado.

Artículo 20. Clasificación de las infracciones.

Artículo 21. Sanciones.

Artículo 22. Circunstancias modificativas de la responsabilidad.

Artículo 23. Procedimiento.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La presente Ordenanza regula, al amparo de lo establecido en la Ley 7/1985, de Bases del Régimen Local y en la normativa reguladora del Patrimonio de las Administraciones Públicas, constituida principalmente por la Ley 33/2003, los diferentes usos o utilizaciones que vienen realizándose del espacio público de la ciudad, considerando éste como el conjunto de las diferentes vías y espacios del dominio público municipal, así como los otros espacios existentes en el término municipal que, correspondiendo al dominio de otras administraciones públicas o a la titularidad privada, se hallan afectos al uso público de la ciudadanía en general.

El objetivo de la regulación es la consecución de la más clara y sencilla ordenación de los diferentes usos que pueden hacerse del espacio público, en particular, de los usos que supongan el aprovechamiento especial, o el uso privativo del mismo, a fin de lograr una mayor protección del uso común del espacio público, que no es otro que aquel que corresponde por igual y de forma indistinta a todas las personas.

El principal derecho ciudadano que el Ayuntamiento deberá garantizar a la hora de conceder las autorizaciones que constituyen el objeto de esta ordenanza, es el de la accesibilidad de la vía pública para todas las personas. A este respecto tanto en la presente ordenanza como en sus actos de aplicación se tendrá especialmente presente la normativa vigente que regula las condiciones básicas de accesibilidad de los espacios públicos, constituida básicamente por el Decreto del Gobierno Vasco 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación y por la Orden ministerial VIV/561/2010, de 1 de febrero, por la que se desarrolla el documento técnico de condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación para el acceso y utilización de los espacios públicos urbanizados.

Otro principio rector de esta Ordenanza es que todo uso, especial o privativo, que se realice en las vías y espacios públicos de Eibar debe contar de forma previa con el pertinente título habilitante o autorización de parte municipal, de acuerdo con lo prevenido en el artículo 84 de la Ley 33/2003, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.

Por último, hay que señalar que la Ordenanza se ha elaborado en consonancia con lo establecido en la Directiva de Servicios 2006/123/CE, relativa a la libertad de establecimiento y de prestación de servicios. Así, se respetan los principios y directrices de la Directiva y de la normativa interna que se proyecta para la transposición de aquella. Se mantiene la técnica autorizante de acuerdo con lo establecido en los artículos 6 y 84 de La Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas, así como el silencio administrativo negativo, de acuerdo con lo establecido en la modificación del artículo 43 de la Ley 30/1992 que realiza la «Ley Ómnibus». En particular se ha puesto especial cuidado en garantizar la exigencia de los mínimos requisitos posibles a los prestadores de servicios que utilizan el espacio público como soporte fundamental de su actividad de servicios –hosteleros, comerciantes– bajo la premisa fundamental de la

EK\CV GAO-I-2023-00145

hartuta. Baimenak emateko garaian inpartzialtasun- eta gardentasun-printzipioak guztiz beteko direla bermatzen da, baita baimenen iraupena mugatua izango dela, baimen horiek ez direla automatikoki berrituko eta jarduera uzten duen emaileak edo berarekin erlazionatutako pertsonek ez dutela abantailarik izango ere. Komunitate-erregulazioaren aurkako edozein baldintza sartzea saihestuko da, eta ezartzen direnak beharrezkoak, proportzionatuak, ez-diskriminatzaileak, argiak, objektiboak, gardenak eta irisgarriak izan beharko dira, eta aurretiaz eman beharko da horien berri. Azkenik, administrazioaren aldetik ahalik eta gehien sinplifikatzeko ahaleginak egingo dira, beharrezkoak ez diren izapide administratibo guztiak ezabatuz, espazio publikoaren erabilera errazteko.

ATARIKO TITULUA

DEFINIZIOAK

Terrazak. Mahaiek, aulkiek, eguzkitakoek, eguzki-oihalek, jardinerek eta hiri-altzarien beste elementu mugikor eta desmuntagarriek osatutako instalazioak dira, beren jarduera ostalaritzako establezimendu baten gehigarri gisa egiten dutenak.

Erabilera pribatiboa espazio publikoaren zati baten okupazioa zehazten duena da, eta ondorioz espazio hori beste pertsona batzuek erabilia izatea mugatzen edo saihesten da. Erabilera pribatiboak lizentzia edo emakida administratiboa lortzea eskatzen du.

LEHEN TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK.

*1. artikulua. Aplikazio-eremua.*

Eibarko hiriko espazio publikoa kale, bide, zirkulazio-bide, plaza, pasealeku, hiribide, parke, lorategi eta bestelako espazio libreek eta hiritarren erabilera publiko edo orokorrera bideratutako beste espazio batzuek osatzen dute, titulartasun publikoa Udalarena edo beste administrazio publiko batzuena izan, edo erabilera publikoari lotutako titulartasun pribatukoak izan.

*2. artikulua. Helburua.*

Ordenantza honen helburua da udalaren jabari publikoko eta azaleran erabilera publikoa duten jabari pribatuko lursailen aprobetxamenduaren araubide juridikoa erregulatzea, ostalaritzako jarduerаren osagarriak diren mahai hankabakarrak edo antzeko instalazioak (barrikak eta mahai altuak, esaterako) dituzten terrazak aldi baterako edo modu iraunkorrean okupatzeari dagokionez. Halaber, jarduera komertzialei lotutako bide publikoko beste elementu batzuen instalazioa erregulatzen da.

*3. artikulua. Baimenak.*

Bide publikoa ordenantza honetan erregulatutako elementuekin okupatzeak jabari publikoko ondasunen aprobetxamendu berezi eta pribatiboa dakarrenez, aurretiazko baimena behar da, dagokion udal baimena lortuz. Mendekotasun hau bide-segurtasunarekin eta ordena publikoarekin, oinezkoak pasatzearekin eta desgaitasuna duten pertsonen oinarrizko irisgarritasun-baldintzekin erlazionatutako interes orokorreko arrazoietan justifikatzen da, baita ibilgailu-sarbidean, hiriko ingurumenean eta espazio publiko urbanizatuen apainduran ere.

Instalazioa erantsita duen establezimendua irekitzeko baimenaren titularrak diren pertsona fisiko zein juridikoei bakarrik emango zaie baimena edo lizentzia.

limitación y escasez del espacio público, que provoca la necesidad de limitar, el número de autorizaciones que pueden ser otorgadas. Cuando ello tenga lugar, se asegura el perfecto cumplimiento de los principios de imparcialidad y de transparencia en su otorgamiento y, asimismo, la duración limitada de las autorizaciones, la no renovación automática de las mismas y la no existencia de ventajas para el prestador cesante o personas vinculadas al mismo. Se evita incluir todo requisito contrario a la regulación comunitaria, y los que se establecen cumplen con el criterio de ser necesarios, proporcionados y no discriminatorios, claros e inequívocos, objetivos, transparentes y accesibles, y están hechos públicos con antelación. Por último se pretende la máxima simplificación administrativa, suprimiendo todos los trámites administrativos innecesarios, a fin de facilitar la utilización del espacio público.

TÍTULO PRELIMINAR

DEFINICIONES

Terrazas. Son las instalaciones formadas por mesas, sillas, sombrillas, toldos, jardineras y otros elementos de mobiliario urbano móviles y desmontables, que desarrollan su actividad de forma aneja a un establecimiento de hostelería.

Uso Privativo es el que determina la ocupación de una porción del espacio público de modo que se limita o excluye la utilización del mismo por otras personas. El uso privativo requiere la obtención de licencia o de concesión administrativa.

TÍTULO PRIMERO

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Ámbito de aplicación.*

El espacio público de la ciudad de Eibar está integrado por las calles, caminos, vías de circulación, plazas, paseos, avenidas, parques, jardines y demás espacios libres y otros espacios destinados al uso público o general de la ciudadanía, ya sean de titularidad pública municipal o de otras administraciones públicas, ya sean de titularidad privada afecta al uso público.

*Artículo 2. Objeto.*

La presente Ordenanza tiene por objeto la regulación del régimen jurídico a que debe someterse el aprovechamiento de terrenos de dominio público municipal y de dominio privado de uso público en superficie, mediante su ocupación temporal o permanente con terrazas de veladores o instalaciones análogas como barricas y mesas altas que constituyan complemento de la actividad de hostelería. También se regula la instalación de otros elementos en la vía pública, vinculados a actividades comerciales.

*Artículo 3. Autorizaciones.*

La ocupación de la vía pública con los elementos regulados en esta ordenanza supone un aprovechamiento especial y privativo de bienes de dominio público por lo que está sujeto a previa autorización, mediante la obtención de la correspondiente licencia municipal. Este sometimiento se justifica en razones de interés general relacionadas con la seguridad vial y el orden público, el tránsito peatonal y la garantía de las condiciones básicas de accesibilidad de las personas con discapacidad, el acceso rodado de vehículos, el medio ambiente urbano y el ornato de los espacios públicos urbanizados.

La licencia sólo se otorgará a las personas físicas o jurídicas titulares de la licencia de apertura del establecimiento al que está aneja la instalación.

EK\CV GAO-I-2023-00145

Baimenaren dokumentua eta bere xehetasun-planoa, edo horien fotokopia bana, jardueraren tokian egon beharko dira, eskatzen dituzten agintzaritzako agenteen esku.

Aurretiko eskubiderik eza. Jabari publikoko ondasunen besterenezintasunari eta preskribaezintasunari buruzko oharrekin bat, okupazioa baimendu ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak batera betetze hutsak ez du inolako eskubiderik ematen lizentzia lortzeari dagokionez. Udalak, baldintza erreal eta aurreikusgarri guztiak kontuan hartuz, askatasun osoa izango du lizentzia emateko edo ukatzeko, eta interes orokorra interes partikularraren gainetik ezarriko du.

Inolako okupaziorik gabe utzi ahal izango dira oinezko asko ibiltzen direlako Tokiko Gobernu Batzarrak jende-pilaketa handiko tartetzat hartzen dituen lekuak. Halaber, aldi baterako bertan behera utzi ahal izango da lizentzia bidez baimenduta dagoen bide publikoa okupatzeko aukera, jai-ospakizunak, kirolekitaldiak edo beste mota bateko gertaerak direla medio, alkatetzaren dekretu bidez.

Okupatutako eremuan jendearen bistan jartzen diren testu idatzi guztiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira. Testu horiek hizkuntza bat baino gehiagotan jartzen badira, euskarari lehentasuna emango zaio.

BIGARREN TITULUA

TERRAZAK

*4. artikulua. Kokapena.*

Ostalaritzako establezimenduetako terrazak eremu publikoaren honako elementu hauetan jarri ahalko dira:

— Espaloietan.

— Oinezkoen esparruetan.

— Aparkalekuetan.

4.1. Espaloiak.

Ez da utziko mahairik jartzen 3 metrotik beherako zabalera duten espaloietan edo oinezkoen ibilbideetan. Oinezkoen gutxieneko pasabide libreak, edozein kasutan ere, metro 2,00 edo hortik gorako zabalera izango du. Pasabideak pertsonen biraketa, gurutzaketa eta noranzko-aldaketa bermatu behar ditu, haien ezaugarriak edo desplazatzeko modua alde batera utzita.

Salbuespen gisa gutxieneko pasoa 1,50 m-ra murriztu ahal izango da apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren araudiak aurreikusitako kasu honetan: 12 etxebizitza/hektareako dentsitatea edo txikiagoa duten etxebizitzen urbanizazioetan.

Instalazioak inolaz ere ezin du hartu espaloiak duen zabaleraren % 50etik gorako lekurik.

Espaloietan jartzen direnean, terraza espaloiaren zintarriaren lerroan jarriko da.

4.2. Oinezkoentzako esparruak.

Terrazak oinezkoentzako eremuetan jartzen direnean, altzariak gutxienez 3 metro zabal den oztoporik gabeko espazio bat lagatzeko moduan jarriko dira, oinezkoak eta ibilgailu baimenduak eta larrialdietakoak pasatzeko.

Oinezkoentzat aldi baterako egokitzen diren guneetan –normalean asteburuetan–, oinezkoentzako eremuaren neurria trafikora ixten denean bakarrik bada aski, terrazak jartzeko lizentziak leku horiek oinezkoentzat jartzen direnean bakarrik eman ahal izango dira.

Oinezkoen esparruetan, oinezkoen ibilbide irisgarria bide erditik badoa eta ukipen-zoladura adierazgarria badu, terraza establezimenduaren fatxada ondoan jarri ahal izango da. Kasu be-

El documento de la licencia y su plano de detalle, o una fotocopia de los mismos, deberán encontrarse en el lugar de la actividad, a disposición de los agentes de la autoridad que la reclamen.

Carencia de derecho preexistente. En virtud de las notas de inalienabilidad e imprescriptibilidad de los bienes de dominio público, la mera concurrencia de los requisitos necesarios para que la ocupación pueda ser autorizada no otorga derecho alguno a la obtención de la licencia. El Ayuntamiento, considerando todas las circunstancias reales o previsibles, tendrá la plena libertad para conceder o denegar la licencia, haciendo prevalecer el interés general sobre el particular.

Podrán ser excluidos de ocupación alguna aquellos espacios que, por su intensidad de tránsito peatonal, sean declarados Tramos congestionados por la Junta de Gobierno Local. También se podrán suspender temporalmente la posibilidad de ocupación de la vía pública autorizada mediante licencia, por causa de eventos festivos, deportivos o de otra índole, mediante Decreto de alcaldía.

Todo tipo de texto escrito que se coloque a la vista en los elementos regulados en esta ordenanza estará al menos en euskara o en euskara y castellano. Si ese texto se pone en más de una lengua, se le dará prioridad al euskara.

TÍTULO SEGUNDO

TERRAZAS

*Artículo 4. Ubicación.*

Las terrazas de establecimientos hosteleros podrán instalarse en los siguientes elementos de la vía pública:

— Aceras.

— Zonas peatonales.

— Zonas de estacionamiento.

4.1. Aceras.

Podrá autorizarse la instalación de terrazas en aceras cuando permitan un paso peatonal libre mínimo de anchura mayor o igual que 2,00 metros, que garantice el giro, cruce y cambio de dirección de las personas independientemente de sus características o modo de desplazamiento.

Se podrá reducir el paso mínimo a 1,50 m, de forma excepcional, en los casos previstos en la normativa Decreto 68/2000, de 11 de abril: urbanizaciones de viviendas de densidad igual o inferior a 12 viviendas/Hectárea.

Asimismo la superficie ocupada por las terrazas no podrá exceder del 50 % de la anchura de la acera.

Cuando se instalen en aceras la terraza se situará en la línea del bordillo de la acera.

4.2. Zonas peatonales.

Cuando se instalen en zonas peatonales el mobiliario de las terrazas se colocará de forma que quede un espacio libre de todo obstáculo de, al menos, 3 metros de anchura, para permitir el tránsito peatonal y el paso de vehículos autorizados y de emergencias.

En las zonas en que se realiza la peatonalización temporal, generalmente los fines de semana, si las dimensiones del espacio peatonal sólo fueran suficientes cuando la zona se cierra al tráfico, podrán concederse licencias para la instalación de terrazas sólo en los períodos de peatonalización.

En zonas peatonales, en el caso de que el itinerario peatonal accesible discurra por el centro de la vía y disponga de pavimento táctil indicador, la terraza podrá ubicarse junto a fachada

EK\CV GAO-I-2023-00145

rezietan, gunearen eraketa fisikoak berak uzten ez duenean edo jarraibide horiek betetzea komeni ez denean, Udalak beste ezaugarri batzuk ezar diezazkioke okupazioari.

4.3. Aparkalekuak.

Aparkalekuetan terrazak jartzeko baimena eman ahal izango zaie ostalaritzako establezimenduei, baldin eta ez badute lekurik 4 mahai edo gehiago jartzeko espaloietan edo oinezkoentzako esparruetan. Ez da inolaz ere baimenduko lehendik dauden terrazak aparkalekuetan handitzea. Baldin eta espaloian edo oinezkoen esparruan 4 mahai baino gutxiagoko terraza bat jartzeko baimena badute, horri uko egin beharko diote aparkalekuan jartzeko baimena eskatzeko.

Segurtasun-arrazoiengatik, aparkalekuetan ezingo da terrazarik jarri honako kasuetan:

a) 3.5 metroko zabaleratik beherako galtzada duten kaleetan. Zabalera hori izango da beharrezkotzat jotzen den gutxienekoa terraza baimentzeko.

a) Beste erabilera batzuetarako aparkalekuetan: garraio publikoaren geltokiak, taxiak, zamalanak, ibiak...

Okupa daitekeen aparkatze-banda establezimenduaren fatxadari dagokiona baino ez da izango, eta gehienez ere turismo-ibilgailuak aparkatzeko bi plazaren baliokidea izango da, bai lerroan, bai baterian; gehienez 8 metro lerroan eta 4 metro baterian.

Okupazioak establezimenduaren zabalera gainditzen badu, aldameneko lokalaren titularraren baimena eskatu beharko du.

Ezingo da era honetako terrazarik eskatu bakarrik asteburuetan edota denboraldietan erabiltzeko. Ez bada terraza erabiltzen hilabete baino gehiagoan eta tokiak hutsik jarraitzen badu, emandako baimena baliogabetu egingo da.

Terraza pertsona guztientzat izan beharko da irisgarria; hortaz, egurrezko edo antzeko materialez eginiko oholtza bat jarri beharko da, zoladura irristagaitzezkoa eta edozein klima-egoeratarako balio izango duena. Elementuak erraz desmuntatzeko modukoa izan beharko du.

Oholtzaren eta espaloiko zintarriaren arteko elkarguneak erabat arrasean egon beharko du, inolako irtengunerik gabe.

Terrazak behar bezala mugatuta egon beharko du galtzadarekiko eta aldameneko aparkalekuekiko hesi, baranda edo antzeko bat jarriz, gutxienez 1,2 metroko altuera izango duena galtzada-gunetik neurtuta. Barandak egitura bat izan beharko du eskudelaren azpitik pasatzea eragotziko duena.

Oholtza aparkalekuaren pintura-markak bistan utziz jarri beharko da.

Lerroko aparkalekuetan 1,20 m-ko material malguko oztopo-zutoin bat instalatu beharko da aparkatzeko gunearen eta oholtzaren artean, oholtzatik 10 cm-ko distantziara.

Udalak baimenean ezarriko ditu instalazioaren baldintza estetikoak. Kale batean lehendik baimendutako oholtza bat baldin badago, ondoren jarriko direnek material eta diseinu berberak izan beharko dituzte.

Oholtzaren euste-sistemak ezin dio kalterik egin galtzadaren zoladurari; ezingo da zulorik edo antzekorik egin galtzadan.

Oholtzaren instalazioak ez du euri-uren hustubidea eten behar; beraz, galtzadaren gaineko oholtzaren euskarriek azaleko uren hustubidea ahalbidetu beharko dute, bai luzetara, bai zeharka. Oholtzaren gaineko azaleko euri-urak galtzadarantz hustuko dira, ez espaloirantz.

del establecimiento. En casos especiales, cuando por la propia configuración física del espacio no sea posible, o conveniente seguir estas indicaciones, el Ayuntamiento podrá establecer otras características de la ocupación.

4.3. Zonas de estacionamiento.

Podrá autorizarse la instalación de terrazas en zonas de estacionamiento a aquellos establecimientos hosteleros que no cuenten con espacio para la instalación en aceras o zonas peatonales de 4 mesas o más. En ningún caso se autorizarán ampliaciones de terrazas existentes sobre espacios de estacionamiento. Si tienen concedida una terraza de menos de 4 mesas en acera o zona peatonal, deberá renunciar a ella para solicitar la instalación en zona de estacionamiento.

Por motivos de seguridad se excluye la posibilidad de ocupación de zonas de estacionamiento con terrazas:

a) En aquellas calles cuyo ancho de calzada sea inferior a 3.5 metros siendo este el ancho mínimo que se estima necesario para autorizar su instalación.

b) Zonas de aparcamiento reservadas para otros usos: paradas de transporte público, taxis, carga y descarga, vados,...

La banda de estacionamiento susceptible de ocupación será exclusivamente la correspondiente a la fachada del establecimiento, equivalente como máximo a dos plazas de estacionamiento de vehículos tipo turismo tanto en línea como en batería, con un máximo de 8 metros en línea y 4 metros en batería.

En el caso de que la ocupación sobrepase el ancho del establecimiento deberá solicitar, en todo caso, la autorización de la persona titular del local colindante.

No se podrá solicitar este tipo de terraza para su uso sólo en fines de semana y/o temporadas. En el caso de que no se hiciese uso de la terraza durante más de 1 mes y permaneciese el espacio vacío se revocará la autorización concedida.

Deberá ser accesible para todas las personas para lo cual se deberá instalar un tarima de madera o material similar con pavimento antideslizante, en toda condición de clima. El elemento deberá ser fácilmente desmontable.

El encuentro entre la tarima y el bordillo de la acera deberá estar totalmente enrasado sin resalto alguno.

La terraza deberá quedar perfectamente delimitada con respecto a la calzada y a la zona de estacionamiento colindante con la instalación de una barrera, barandilla o similar, de altura no inferior a 1,2 metros medidos desde la zona de la calzada. La barandilla deberá contar con una estructura que impida el paso por debajo del pasamanos.

La tarima deberá instalarse dejando vista la pintura vial del estacionamiento.

En los estacionamientos en línea se deberá instalar una pilona de material flexible de 1,20 m. entre la zona de estacionamiento y la tarima, a una distancia de 10 cm. respecto de la tarima.

El Ayuntamiento fijará las condiciones estéticas de la instalación en la autorización. En caso de que en una misma calle haya una tarima ya autorizada, los materiales y diseño de las posteriores deberán ser similares.

El sistema de colocación y apoyo de la tarima deberá ser tal que no dañe el pavimento de la misma, no se permitirá la ejecución de agujeros o similar sobre la calzada.

La instalación de la tarima no deberá interrumpir el desagüe de las aguas pluviales por lo que los apoyos de la tarima sobre la calzada deberán permitir el desagüe de las aguas superficiales tanto de forma longitudinal como transversal. Las aguas superficiales de lluvia sobre la tarima deberán ser desaguadas hacia la calzada, no hacia la acera.

EK\CV GAO-I-2023-00145

Terrazarako baimendutako espazioan zerbitzu-kutxatila bat badago, jarritako oholtzak bertara sartzeko erregistro bat izan beharko du edo erraz desmuntatzeko modukoa izan beharko da. Establezimenduko titularrak utzi beharko du kutxatila erabiltzen eta haren erregistroa egiten, zerbitzuak hala eskatzen duen guztietan.

Ezingo da jarri ez eguzkitakorik ez galtzada inbaditu dezakeen elementurik.

Baimena eman baino lehen, txosten bat eskatuko zaio Udaltzaingoari trafikoan izan dezakeen eraginari buruz, eta eskatuko da 500 €-ko berme bat jartzea, terrazaren erabilerari lagatzen zaionean oholtza kenduko dela bermatzeko.

4.4. Baldintza orokorrak.

Baimenak establezimenduaren aurrean dagoen lur-zatia okupatzea ahalbidetuko du. Salbuespen gisa, aldameneko establezimenduari dagokion tartea okupatuta egon daiteke. Halako kasuetan, beharrezkoa izango da aldameneko lokalaren titularrak idatziz emandako baimena.

Ez da terrazarik jartzen utziko, baldin eta ibilgailuak zirkulatzeko bideren bat badago ostalaritzako establezimenduaren eta jarri nahi den terraza finkoaren artean. Salbuespen gisa, baimendu liteke baldin eta oinezkoen pasabide seguru bat egongo balitz establezimenduaren sarbidetik 20 metro baino gutxiagora, edo oinezkoek lehentasuna duten koexistentzia-kale bat balitz, eta terrazaren kokapenak gainerako baldintzak beteko balitu. Udaltzaingoaren aldeko txostena egin beharko da trafikoaren eraginari buruz.

Irisgarritasun-araudiarekin bat etorriz, oinezkoaren eskubidea lehenetsiko da; horretarako, saltokietara eta atarietara sartzeko lekuak libre utzita jarriko da terraza, horietatik gutxienez 60 cm aldenduz. Halaber, terrazak luzetara hartzen duen lekuan, 11 metrotik 11 metrora, 1,50 metroko zeharkako pasabide libre bat utzi beharko da, okupatu beharreko lekuaren ezaugarriak direla-eta bestelako banaketa bat egitea egokiagoa denean izan ezik.

Edonola ere, zuhaitzak, zuhaitz-txorkoak, parterreak, hiri-altzariak, sarbideak eta oinezkoentzako pasaguneak errespetatuko dira.

Irisgarritasun-araudiak definitzen duen oinezkoentzako ibilbide irisgarria ez da inolaz ere okupatuko edo aldatuko. Okupatutako azalera erraz atzemateko modukoa izan beharko da, eta ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzat arriskutsua izan daitekeen edozein elementu edo egoera saihestuko da. Instalazio hauetako elementuen diseinuak eta kokapenak pertsona guztiak erabiltzeko modukoak izango dira.

Okupazio-modulu orokorra 1,85 x 1,85 metro karratukoa izango da, beraz, mahai bat eta 4 aulki jartzekoa. Espaloi estuetan edo mahai 1 eta 4 aulki jartzeko aukerarik ez dagoen lekuetan, dagoen lekura hobeto egokitzeko asmoz, baimena emango da barrikak eta aulkiak jartzeko, edo modulu orokorrari aldaketa batzuk egiteko. Beraz, horrelako kasuetan, mahai 1 eta 3 aulkiz osatutako moduluak (1,85 x 1,35 m) edo mahai 1 eta aulki 2koak (1,85 x 0,85 m) jartzen utziko da.

*5. artikulua. Instalazio-motak eta okupatutako lekua mugatzea.*

5.1. Instalazio-motak: Ordenantza honek baimentzen dituen terrazak mota bikoak dira:

Terraza desmuntagarriak. Instalazio-mota hau da normalean jartzen dena eta mahaiak, aulkiak eta elementu lagungarriak (eguzkitakoak, paramentuak, estufak, lorontziak...) izaten ditu. Jardinerak edo lorontziak eta babeseko paramentu bertikalak jartzeko aukera egongo da. Instalatutako elementu guztiak egunero batzeko eta horretarako egokitutako lokalean gordetzeko modukoak izango dira; debekatuta dago elementu horiek lurzoruan ainguratzea.

En el caso de que en el espacio autorizado para terraza se encuentre una arqueta de servicio, la tarima instalada deberá o bien tener un registro para acceder a la misma o ser fácilmente desmontable. El titular del establecimiento deberá permitir el uso y registro de la arqueta en todo momento que el servicio lo requiera.

No se podrán colocar sombrillas u otros elementos que puedan invadir la calzada.

Previamente a la concesión se solicitará informe de la policía municipal respecto a la afección al tráfico, y se solicitará el depósito de una garantía de 500 € para garantizar la retirada de la tarima cuando se cese en el uso de la terraza.

4.4. Condiciones generales.

La autorización permitirá la ocupación del tramo de suelo situado ante el propio establecimiento. Excepcionalmente podrá estar ocupado el tramo correspondiente al establecimiento vecino contiguo, En ese caso será necesaria la previa autorización escrita de la persona titular del local contiguo afectado.

No se permitirá la instalación de la terraza si existe una vía con circulación rodada entre el establecimiento de hostelería y la ubicación de terraza propuesta. Como excepción podría autorizarse si existiese un paso peatonal seguro a menos de 20 metros del acceso al establecimiento, o cuando se trate de una calle de coexistencia de preferencia peatonal y la ubicación de la terraza cumpliese con el resto de requisitos. Se deberá emitir informe favorable de la policía municipal respecto a la afección al tráfico.

En concordancia con la normativa de accesibilidad se primará el derecho del peatón, para ello, la colocación se realizará dejando libres las zonas de acceso a comercios y portales, retirándose de los mismos un mínimo de 60 cm. Deberá dejarse asimismo un paso libre transversal de 1,50 metros cada 11 metros de ocupación longitudinal de la terraza, salvo en casos en que las características del espacio a ocupar aconsejen otra distribución.

En cualquier caso se respetarán los árboles, los alcorques, los parterres, el mobiliario urbano y sus accesos y los pasos de peatones.

En ningún caso se invadirá o alterará el itinerario peatonal accesible, según lo define la normativa de accesibilidad. La superficie ocupada deberá ser detectable, evitando cualquier elemento o situación que pueda generar un peligro a las personas con discapacidad visual. El diseño y ubicación de los elementos de estas instalaciones permitirán su uso por parte de todas las personas.

El módulo de ocupación genérico será de 1,85 x 1,85 metros cuadrados correspondiente a 1 mesa y 4 sillas. En el caso de aceras estrechas en las que no es posible la colocación del módulo principal de 1 mesas y 4 sillas, con el fin de adaptarse mejor al espacio disponible, se permitirá la colocación de barriles y taburetes, o bien variaciones del módulo principal; en estos casos, se permitirá la instalación de módulos compuestos por 1 mesa y 3 sillas (1,85 m x 1,35 m) o módulos de 1 mesa y 2 sillas (1,85 m x 0,85 m).

*Artículo 5. Tipos de instalaciones y delimitación del espacio ocupado.*

5.1. Tipos de instalaciones. Las terrazas que autoriza esta Ordenanza son de dos tipos:

Terrazas desmontables. Constituyen el tipo general de instalación y está formado por mesas, sillas y elementos auxiliares como sombrillas, paramentos, estufas, jardineras,...etc. Cabrá la posibilidad de colocación de jardineras y de paramentos verticales de protección. Las características de todos los elementos instalados deberán permitir su recogida y guarda diaria en el local habilitado al efecto, estando prohibido su anclaje al suelo.

EK\CV GAO-I-2023-00145

Terraza finkoak. Salbuespen badira ere, Udalak baimena eman dezake horrelako terrazak oinezkoen guneetan, plazetan edo gune libre berezietan jartzeko, betiere oinezkoen edo emergentziazko ibilgailuen pasoko lekuak ez badira eta beste bide edo gune libre batzuetara irteerarik edo konexiorik ez badute –esate baterako Eibarko Bizikleta plaza– eta haien kokapenak umeentzako jolastoki-erabilerari, hiri-altzariei, kale-garbiketari eta abarri eragiten ez badie.

Ez da horrelako terrazarik jartzen utziko ostalaritzako establezimenduaren eta jarri nahi den terraza finkoaren artean ibilgailuak zirkulatzeko bideren bat badago.

Terraza finkoek diseinu irekia eduki beharko dute eta ikusmenaren iragazkortasuna; terrazek ez diote oztopo egingo hiria hautemateko moduari eta ez dute edukiontzi trinko bezala jardungo.

Terraza finkoek hartzen duten lekua, lurzoruari ainguratutako alboetako haize-babesleek mugatuta egongo da. Haize-babesle horien egiturek Oxironez pintatutako metalezko mihiztadura edukiko dute eta segurtasunezko beirazko panelak, bai eta ehun-material lisoko estalki desmuntagarria ere.

Terraza finkoaren estalkia egin daiteke bai isuri biko olanarekin egindako lehorpea jarrita, bai erdian masta duten itzalkinak edo eguzkitakoak erabilita. Hala ere, horrek ez du baztertzen behar bezala justifikatutako beste soluzio zehatz batzuk onartzeko aukera.

Terrazaren funtzionamendu-ordutegitik kanpo estalkia itxi eta altzariak barrura erretiratu behar dira.

Elementu horien modeloak Eibarko Udalaren aldez aurretiko baimena izan beharko du.

*6. artikulua. Altzarien ezaugarriak.*

6.1. Mahai eta aulkien materialak terraza muntatzeko eta desmuntatzeko garaian zoladuraren gainean lekualdatzen direnean zoladura ez kaltetzeko eta ahalik eta zarata gutxien sortzeko modukoak izango dira. Terraza osatzen duten mahaiak eta aulkiak ezingo dira PVCzkoak edo antzeko material batekoak izan, eta ahal dela aluminiozkoak edo egurrezkoak izango dira. Altzari guztiek beren euskarri guztiak osorik bilduko dituzten gomazko elementuak izango dituzte, talkak izanez gero edo arrastatuz gero sortutako zaratak saihesteko.

6.2. Terraza bakoitzak mota bakar bateko aulkiak eta mahaiak erabiliko ditu, eta elementu-mota bakoitzak kolore bakarra izango du. Debekatu egiten da terraza edo mahai hankabakarra osatzen duen edozein elementutan publizitatea jartzea, baita bertako elementu lagungarri desberdinetan ere.

6.3. Bai eskaera berrietan bai berritze-eskaeretan jarriko diren altzarien ezaugarriak adierazi beharko dira, baita altzarien euskarrien gomazko elementuenak ere, eta horiek guztiek Udaleko Zerbitzu Teknikoen onespena jaso beharko dute.

*7. artikulua. Eguzkitakoak eta eguzki-oihalak.*

Terrazako elementu gisa eguzkitakoak jarri ahal izango dira, arau hauei jarraiki:

a) Eguzkitakoak jartzeko lizentzia beharko da, eta hori terraza jartzeko lizentziarekin batera eskatu ahal izango da, edo terrazaren lizentzia eskatu ondoren.

b) Eguzkitakoak tolesgarriak eta desmuntagarriak izan beharko dira, eta ez da baimenduko zoladuran edozein motatako ainguraketen bidez eustea.

c) Eguzkitakoen hegalak ezingo du terrazarentzat baimendutako azalera gainditu, ezta oinezkoak pasatzea oztopatu ere. Espaloiaren lur-arrasetik zabaldutako eguzkitakoen alderdirik baxueneraino 2,20 metroko altuera librea geratzeko moduan jarriko dira.

Terrazas estables. Excepcionalmente podrá autorizarse por el Ayuntamiento este tipo de terrazas en áreas peatonales, plazas o espacios libres singulares, que no constituyan lugares de paso peatonal o de vehículos de emergencia, y que no tengan salida o conexión con otras vías o espacios libres, como por ejemplo Eibarko Bizikleta Plaza, y que permitan su ubicación sin afectar al uso de parque infantil, mobiliario urbano, limpieza viaria,...etc...

Además no se permitirá su instalación si existe una vía con circulación rodada entre el establecimiento de hostelería y la ubicación de terraza estable propuesta.

El diseño de las terrazas estables deberá ser abierto y deberá primar la permeabilidad de vistas, sin que suponga obstáculo a la percepción de la ciudad ni operen a modo de contenedor compacto.

Las terrazas estables deberán contar con un recinto delimitado por paravientos laterales anclados al suelo, de una altura máxima de 1,80 metros, formados por un ensamblaje metálico pintado en oxirón y paneles de vidrio de seguridad, así como de una cubierta desmontable de material textil liso.

La cubierta de la terraza estable se podrá realizar, bien mediante un pórtico con toldo partido a dos aguas, bien mediante sombrillas o parasoles con mástil central, sin perjuicio de la posibilidad de admitir soluciones específicas debidamente justificadas.

Fuera del horario de funcionamiento de la terraza se deberá cerrar la cubierta y retirar el mobiliario.

El modelo de estos elementos deberá contar con la autorización previa del Ayuntamiento de Eibar.

*Artículo 6. Características del mobiliario.*

6.1. Las mesas y sillas serán de un material tal que, tanto en su desplazamiento sobre el pavimento como durante el montaje y desmontaje de la terraza, no dañen el mismo y produzcan el menor ruido posible. Las mesas y sillas que componen la terraza no podrán ser de PVC o material similar, serán preferentemente de aluminio o madera. Todo mobiliario dispondrá de elementos de goma que recojan totalmente todos lo apoyos para evitar ruidos por impacto y arrastre en el exterior.

6.2. Cada terraza utilizará un único tipo de silla y mesa, así como un único color, igual para cada tipo de elemento. Se prohíbe la publicidad en cualquiera de los elementos que componen la terraza o velador, así como en sus distintos elementos auxiliares.

6.3. Tanto en las nuevas solicitudes como en las peticiones de renovación se deberá indicar las características del mobiliario que se va a instalar, así como de los elementos de goma de los apoyos del mobiliario, el cual deberá recibir el visto bueno de los Servicios Técnicos Municipales.

*Artículo 7. Sombrillas y toldos.*

Podrán instalarse, como elemento de la terraza, sombrillas, con sujeción a las siguientes normas:

a) La instalación de sombrillas está sujeta a licencia, que podrá solicitarse conjuntamente con la de la terraza, o con posterioridad a la misma.

b) Las sombrillas deberán ser plegables y desmontables, sin que se permita su sujeción al pavimento mediante cualquier clase de anclaje.

c) El vuelo de las sombrillas, no podrá exceder de la superficie autorizada para terraza, ni entorpecer el tránsito peatonal. Se colocarán de forma que quede una altura libre de 2,20 metros medidos desde la rasante de la acera hasta la parte más baja de las mismas una vez desplegadas.

EK\CV GAO-I-2023-00145

Eguzki-oihalek beti izango dute maniobra errazen bidez biltzeko aukera. Debekatuta dago eguzki-oihalen perimetroko azalera bertikalak ixtea, baita terrazako zona material zurrun, zeharrargi edo gardenekin estaltzea edo ixtea ere, nahiz eta egitura argi eta desmuntagarriek eutsita egon. Eguzki-oihalak ere 2,20 metroko gutxieneko altueran egongo dira.

*8. artikulua. Bestelako elementuak.*

8.1. Barrikak eta mahai altuak.

Barrikak edo mahai altuak eta aulkiak jartzen utziko da, baldin eta haien pisuagatik eta neurriengatik egunero erraz jasotzeko eta eramateko modukoak badira; barrikek, gutxi gorabehera, 60 cm-ko diametroa izango dute eta 1,20 metroko altura; aulkiak barrikaren altueraren araberakoak izango dira. Materialak erraz garbitzeko modukoak izango dira. Inolaz ere ezingo dira bide publikoan geratu establezimenduak zabalik egoteko duen ordutegitik kanpo.

Altzari-mota hauek 4. artikuluaren kokapen baldintzak bete beharko dituzte oinezkoentzako ibilbide irisgarria inbaditzeke. Establezimenduaren fatxada ondoan jar daitezkeen elementu bakarrak fatxadan lotutako elementu finkoak izango dira, barrikek edo mahai altuek betetzen duten funtzio berdina betetzen dutenak eta sekzio konstantekoak, ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzat arriskurik ez izateko. Arrazoi horregatik, elementu finko horiek ezingo dute aulkirik izan. Elementu horiek ez dira fatxadaren lerrotik kanpora 40 cm baino gehiago aterako eta kasu guztietan oinezkoak pasatu ahal izatea bermatu beharko da, gutxienez metro 2ko zabalera duen zati bat, inolako oztoporik gabe utziz.

Bide publikoa okupatzeagatiko tasa ordaintzeko orduan, barrika edo mahai bakoitza bi metro karratuko okupazioa duen azalera gisa sartuko da kalkuluan.

8.2. Berogailuak.

Terraza jartzea baimenduta duten ostalaritza-establezimenduek kanpoaldean berogailuak jartzeko baimena izango dute, betiere baldintza hauek betez:

a. Kanpoaldeko berogailu bat jarriko da, gehienez, baimendutako lau mahaiko.

b. Berogailu horiek urria eta apirila bitartean jarri ahal izango dira.

c. Ostalaritza-establezimendu batek kanpoaldeko berogailuak jartzea aukeratzen badu egunero kendu beharko ditu, bide publikoan jarritako gainerako altzariak bezala, horretarako baimendutako ordutegiari jarraiki.

d. Edonola ere, interesdunak ABC hautsezko itzalgailuak jarri beharko ditu, 21A22 113B eraginkortasunekoak, erraz iristeko moduko leku batean.

e. Berogailuaren modeloa elektrizitatearekin edo gasa zein kea isurtzen ez duen beste erregai batekin ibiliko da gehienbat.

f. Elektrikoak ez diren berogailuen artean, azaroaren 27ko 1428/1992 Errege Dekretuarekin, gasezko aparailuei buruzko Europako Erkidegoetako Kontseiluaren 90/396/CEE Direktiban aplikatzekoak diren xedapenak ematen dituenarekin, bat datozen gas-berogailuak bakarrik baimenduko dira. Edonola ere, karkasa batek edo antzeko egitura batek babestuta egon beharko du berogailuak, propano gasa duten elementuak manipulatzea eragozteko. Ezingo da berogailu horiek eraikinen baten fatxada-lerrotik edo zuhaitz, kale-argi edo beste elementu batzuetatik 2,00 metro baino distantzia txikiagoan jartzeko baimenik eman. Instalazio horien eskaeran berogailuen kalitate-bermea eta Europar Batasuneko homologazio-ziurtagiria aurkeztu beharko dira, baita PGLen eta bere eratorrien instalazioetan espezializatutako mantentze-enpresarekin egindako kontratua ere.

Los toldos serán tendrán siempre posibilidad de ser recogidos mediante fácil maniobra. Queda prohibido el cerramiento de las superficies verticales del perímetro de los mismos, así como el cubrimiento o cerramiento de la zona de terraza con materiales rígidos, translúcidos o transparentes, aunque estén soportados por estructuras ligeras y desmontables. Los toldos estarán igualmente a una altura mínima de 2,20 m.

*Artículo 8. Otros elementos.*

8.1. Barricas y mesas altas.

Se permitirá la instalación de barriles o mesas altas y taburetes, siempre que sus peso y dimensiones permitan su fácil portabilidad y recogida diaria; las dimensiones aproximadas de los barriles será de 60 cm. de lado o diámetro, y 1,20 metros de altura, debiendo ser los taburetes de altura adecuada al barril. Los materiales empleados deberán facilitar su fácil limpieza. En ningún caso podrá permanecer en la vía pública fuera del horario de apertura del establecimiento.

Este tipo de mobiliario deberá respetar las condiciones de ubicación del artículo 4 sin invadir el itinerario peatonal accesible. Únicamente se podrán colocar junto a la fachada del establecimiento elementos fijos sujetos a fachada, que cumplan la misma función que las barricas o mesas altas, y que deberán tener sección constante para no generar peligro a las personas con discapacidad visual. Por esta razón estos elementos fijos no podrán contar con taburetes. Estos elementos no sobresaldrán de la línea fachada más de 40 cm, debiendo garantizarse en cualquier caso el paso peatonal, libre de todo obstáculo, de un mínimo de 2 m de anchura.

A efectos del pago de la correspondiente tasa por ocupación de vía pública, cada barrica o mesa alta computará por una superficie de dos metros cuadrados de ocupación.

8.2. Estufas.

Para los establecimientos hosteleros que tengan autorizada la colocación de terraza, estará permitida la colocación de estufas de exterior ajustándose a los siguientes requisitos:

a. Las estufas de exterior se colocarán como máximo en una proporción de una por cada cuatro mesas autorizadas.

b. La temporada en la que podrán colocarse dichas estufas será la comprendida entre los meses de octubre a abril.

c. Caso de que un establecimiento hostelero opte por la colocación de estufas de exterior deberá retirarlas diariamente, al igual que el resto de mobiliario instalado en la vía pública, de acuerdo con el horario autorizado al respecto.

d. En todo caso, el interesado deberá disponer de extintores de polvo ABC, eficacia 21A22 113B, en lugar fácilmente accesible.

e. El modelo de estufa funcionará preferentemente con electricidad u otro combustible que no genere emisiones de gas o de humos.

f. Fuera de las estufas eléctricas sólo se permitirán estufas de gas que deberán sujetarse al Real Decreto 1428/1992 de 27 de noviembre, por el que se dictan las disposiciones de aplicación de la Directiva del Consejo de las Comunidades Europeas 90/396/CEE sobre aparatos de gas. En todo caso, la estructura de la estufa deberá ir protegida con una carcasa o similar que impida la manipulación de aquellos elementos que contengan el gas propano. No podrá autorizarse la instalación de estas estufas a menos de 2'00 metros de la línea de fachada de algún inmueble, ni de otros elementos, tales como árboles, farolas, etc. En la solicitud de estas instalaciones se deberá presentar Garantía de calidad y Certificado de Homologación de la Comunidad Europea de las estufas y Contrato con empresa de mantenimiento especializada en instalaciones de GLP y sus derivados.

EK\CV GAO-I-2023-00145

Hala eta guztiz ere, eta aipatutako berogailuak jartzeari zuzenean edo zeharka eragin diezaioketen hiri-altzarien beste elementu batzuk edo hainbat egoera izan daitezkeela kontuan hartuta, berogailuak jartzeko baimena ukatu ahal izango da xede horretarako egingo den txosten teknikoarekin bat etorriz.

8.3. Aulki korrituak.

Espaloia edo oinezkoak bakarrik pasatzeko zona terraza jartzeko behar adina zabala ez denean baimendu ahal izango dira. Fatxadaren planotik kanpora irteten badira, mugikorrak izan beharko dira eta egunero kendu beharko dira. 3 m-ko luzera izango dute gehienez ere, eta horiek jartzeko baimena eman ahal izango da soilik kalean gutxienez 2 metroko zabalera duen inolako oztoporik gabeko espazio librea uzten denean, oinezkoei pasatzeko aukera bermatzeko. Terraza duten establezimenduetan ez da aulki korriturik jarriko.

8.4. Bide publikora ematen duten erakusmahai-leihoak.

Establezimenduetan erakusmahai-leihoak zabaltzen lagako da terraza-zerbitzurako; hala ere, terrazak erretiratzen direnean horrelakoak egin behar dira, eta 00:00etatik aurrera beti itxita eduki behar dira. Erakusmahai-leiho horiek erabiltzen diren bitartean ez da musikarik edo beste zarata-iturririk jarrita egongo establezimendu barruan. Erakusmahai-leihoak zabaltzeko baimena honetara baldintzatuko da: lokalaren zarata-isolamendua mantenduko dela teknikoki bermatzera.

8.5. Kanpoko apalak.

Kanpoko apalak kontsumizioak lagatzeko bakarrik utziko dira jartzen, baldin eta apal horiek fatxada-lerroa baino atzerago jartzen badira eta oinezkoei jotzeko arriskurik ez badakarkie.

*9. artikulua. Zarata eta ordutegia.*

9.1. Zarata-transmisioaren mailak mugatzea. Adierazitako instalazioen funtzionamenduak ezingo die transmititu ez etxebizitzei eta ezta bestelako bizitegi- zein ospitale-erabileren barne- eta kanpo-inguruneei ere ezarritako gehieneko zarata-maila gainditzen duen zaratarik.

Titularrarena da terraza ixteko obligazioa bezeroek horiek inguruko bizilagunei eragozpenak sortzen badizkiete; baita terrazarako baimendutako esparru horretatik kanpo bezeroei kontsumizioak ateratzen ez uztea ere.

Terrazetan ez da inolako musika-aparaturik, bozgorailurik eta abarrik jarriko. Zuzeneko emanaldiak guztiz debekatuta daude terraza-espazioetan, baita ikus-entzunezkoen ekipoak jartzea edo audio- zein bideo-emanaldiak egitea ere.

Terrazak eta beren elementuak instalatzeak eta desmuntatzeak inguruko bizilagunei zaratengatiko eragozpenik ez sortzeko behar adina bitarteko jarriko da. Mahai, aulki eta gainerako elementu guztiek hanketan gomak edo neopreno-zatiak izango dituzte arrastatzean zarata gutxiago ateratzeko, 6. artikuluan adierazi bezala.

9.2. Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan ikuskizun publikoen eta aisialdiko jardueren ordutegiak, nahiz jarduera horien inguruko bestelako alderdiak ezartzen dituen ekainaren 17ko 140/1997 Dekretuarekin bat etorriz, terraza jartzeko ordutegi baimendua hau izango da:

a) Ostiral, zapatu eta jaiegun bezperetan:

— Maiatzaren 1etik irailaren 30era: 09:00etatik 01:30era.

— Urtearen gainerakoan: 09:00etatik 00:30era.

b) Domekatik ostegunera edo eguenera:

— Maiatzaren 1etik irailaren 30era: 09:00etatik 00:30era.

— Urtearen gainerakoan: 09:00etatik 23:00etara.

No obstante lo anterior, y atendida la existencia de otros elementos de mobiliario urbano o de diversas circunstancias que puedan afectar de manera directa o indirecta a la colocación de las estufas referidas, podrá denegarse la autorización para su instalación de acuerdo con el informe técnico que al efecto se efectúe.

8.3. Bancos corridos.

Se podrán autorizar en calles cuya acera, o zona de tránsito exclusivo peatonal, no tenga la anchura suficiente para la instalación de terraza. Si sobresalen del plano de fachada deberán ser movibles y retirarse diariamente. Su longitud máxima será de 3 m. y su colocación sólo se podrá autorizar cuando se deje un espacio libre de todo obstáculo en la calle de al menos, 2 metros de anchura, que garantice el tránsito de peatones. No procederá su colocación en establecimientos que cuenten con terraza.

8.4. Ventanas mostrador a vía pública.

Se permitirá la apertura de ventanas-mostrador en el establecimiento para el servicio de terrazas, las mismas deberán estar cerradas cuando se retiren las terrazas, y en todo caso a partir de las 00.00 horas, y mientras se haga uso de las mismas no podrá reproducirse música u otras fuentes de ruido en el establecimiento. Su apertura siempre queda condicionada a que se garantice técnicamente el mantenimiento del aislamiento acústico del local.

8.5. Repisas exteriores.

Sólo se permitirá la colocación de repisas para el depósito de consumiciones, en el exterior de los establecimientos, cuando las mismas se retranqueen respecto de la línea de fachada y no generen riesgo de colisión a los viandantes.

*Artículo 9. Ruido y horario.*

9.1. Limitación de niveles de transmisión sonora. El funcionamiento de las instalaciones expresadas no podrá transmitir al medio ambiente interior y exterior de las viviendas y otros usos residenciales u hospitalarios niveles de ruido superiores a los máximos establecidos.

Será obligación del titular proceder al cierre de la terraza en caso de que los usuarios de las mismas produzcan molestias al vecindario, así como impedir que los usuarios de la terraza saquen las consumiciones fuera de la zona autorizada para la terraza.

No se instalará en las terrazas ningún tipo de aparato musical, ni altavoces, etc. Quedan terminantemente prohibidas las actuaciones en directo, así como la instalación de equipos audiovisuales o la emisión de audio o vídeo en los espacios de terraza.

Se dispondrán los medios para que la instalación y el desmontaje de las terrazas y sus elementos no generen molestias por ruidos al vecindario. Los apoyos en el suelo de las mesas, sillas, taburetes y demás elementos irán provistos de gomas o neoprenos para minimizar el ruido por arrastre de las mismas, como se indica en el artículo 6.

9.2. De acuerdo al decreto 140/1997, de 17 de junio, por el que se establecen los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas y otros aspectos relativos a estas actividades en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el horario autorizado para la instalación de la terraza será:

a) Los viernes, sábados y vísperas de festivo:

— Del 1 de mayo al 30 de septiembre: entre las 9:00 y las 01:30 horas.

— Resto del año entre las 9:00 y las 00:30 horas.

b) De domingo a jueves:

— Del 1 de mayo al 30 de septiembre: entre las 9:00 y las 00:30 horas.

— Resto del año: entre las 9:00 y las 23:00 horas.

EK\CV GAO-I-2023-00145

c) Herriko jaietan, Aste Santuan, Aratusteetan eta Gabonetan.

— Baimendutako ordutegia beste ordu betez luzatuko da.

Hori dena, Udalak berak edo Autonomia Erkidegoak, bakoitzak bere eskumenez baliatuta, sar ditzaketen aldaketen kaltetan gabe.

*10. artikulua. Erantzukizun zibileko asegurua.*

Establezimenduko titularrak izan behar duen erantzukizun zibileko aseguruaren eta suteen aseguruaren polizaren estaldura terrazaren funtzionamendutik erator daitezkeen izaera bereko arrisku posibleetara zabaldu beharko da.

*11. artikulua. Altzariak kentzea eta garbiketa.*

11.1. Arau orokor gisa, establezimenduaren titularrak mahaiak, aulkiak eta gainerako altzari guztiak egunero kendu beharko ditu; horiek establezimenduaren barruan edo beste lokal batean lagako dira eguna amaitzean eta okupatutako espazioa garbitasun-baldintza ezin hobeetan utzi beharko da.

Aulki-pilak, mahaiak, barrikak, eguzkitakoak edo terrazako beste edozein elementu lagungarri ezingo dira inolaz ere eremu publikoan bildu.

Terrazako altzariak biltegiratzeko behar adina tokirik ez izatea nahikoa arrazoi izan daiteke terraza jartzeko lizentzia ukatzeko edo mugatzeko.

Mahaiak eta aulkiak kendu egin beharko dira kalea edozein jai- edo kirol-ekitaldiitarako erabili behar bada. Horretarako, Udaltzaingoak horri buruz ematen dituen jarraibideak bete beharko dira, eta Sail horrek egun jakin horietarako ezartzen dituen ordutegiak errespetatu beharko dira.

Instalazio iraunkorrak (terraza egonkorrak edota oholtzak) kendu egin beharko dira, behar publikoa dela-eta beharrezkoa bada, esate baterako, galtzadan obrak egiteagatik edo antzeko kasuengatik.

11.2. Jardueraren titularrek gutxienez egunero birritan garbitu beharko dute terrazak okupatzen duen eremu hori, eta, nolanahi ere, terraza ixteko ordua iritsi eta hura erretiratu ondoren.

Mahaiek hautsontziak eduki behar dituzte, eta hautsontzi horiek ura eduki behar dute.

*12. artikulua. Artikuluen salmenta automatikoa eta jokomakinak.*

Arau orokor gisa, debekatuta dago espazio publikoa edozein motatako artikuluak saltzeko makina banatzaileak instalatuz okupatzea.

Espazio pribatuetan instalatuta egonik oinezkoek erabiltzeko eremuetatik irisgarriak diren makina banatzaileak, kutxazain automatikoak, telefono publikoak eta antzeko elementuak jartzeko baimena parean gutxienez 2 m-ko zabalera duen inolako oztoporik gabeko eremua dutenean bakarrik eman ahal izango da.

Makina horiek pertsona guztientzat egon beharko dute erabiltzeko irisgarri. Elementuaren diseinuak gurpil-aulkia darabilen pertsona bat gerturatzea ahalbidetu beharko du. Gailu manipulagarriak 0,70 m eta 1,20 m arteko altueran egongo dira.

Jolas eta olgetako aparailuak jartzea, haurrentzako jokoak esaterako, salbuespen gisa baimendu ahal izango da horiek jarri nahi diren espazio publiko zehatzaren egiturak ahalbidetzen duenean, ez badio oinezkoentzako gutxieneko 2 metroko pasaguneari oztoporik egiten.

c) Fiestas locales, Semana Santa, Carnavales y Navidades.

— Se ampliará una hora el horario autorizado.

Todo ello sin perjuicio de las modificaciones que pudieran introducirse por el Ayuntamiento o la Comunidad Autónoma en el ejercicio de sus competencias.

*Artículo 10. Seguro de responsabilidad civil.*

La póliza de seguro de responsabilidad civil e incendios de que deba disponer el titular del establecimiento deberá extender su cobertura a los posibles riesgos de igual naturaleza que pudieran derivarse del funcionamiento de la terraza.

*Artículo 11. Retirada del mobiliario y limpieza.*

11.1. Como norma general, el titular del establecimiento queda obligado a la retirada diaria de las mesas y sillas y todos los elementos del mobiliario, que siempre se retirarán al interior del establecimiento, u otro local, al final de cada jornada, debiendo dejar el espacio ocupado en perfectas condiciones de limpieza.

En ningún caso podrán almacenarse en la vía pública pilas de sillas, mesas, barricas, sombrillas o cualquier otro elemento auxiliar de la terraza.

La inexistencia de un espacio suficiente para almacenar el mobiliario de la terraza podrá ser causa suficiente para la denegación de la licencia de instalación o su limitación.

Tendrán la obligación de retirar las mesas y sillas en caso de que sea necesaria la utilización de la calle para cualquier evento festivo, deportivo, etc., debiendo atenerse a las indicaciones que desde la Policía Municipal se dicten al respecto, y respetando los horarios que desde ese Departamento se les marquen para esos días concretos.

Tendrán la obligación de retirar las instalaciones permanentes (terrazas estables y/o tarimas) en caso de que sea necesario por razones de necesidad pública: para la ejecución de obras en la calzada o supuestos similares.

11.2. Los titulares de la actividad deberán limpiar la zona utilizada por la terraza un mínimo de dos veces al día y, en todo caso, una vez retirada la instalación al término de su horario de funcionamiento.

Las mesas deberán contar con ceniceros, y estos deberán contener agua.

*Artículo 12. Venta automática de artículos y máquinas recreativas.*

Como norma general, se prohíbe la ocupación del espacio público mediante la instalación de cualquier tipo de máquinas expendedoras de todo tipo de artículos.

Las máquinas expendedoras, cajeros automáticos, teléfonos públicos y otros elementos similares que estén instaladas en espacios privados pero que sean accesibles desde áreas de uso peatonal sólo podrán autorizarse cuando cuenten con un área frontal libre de obstáculos de un mínimo de 2 m. de anchura.

El uso de estas máquinas deberá ser accesible a todas las personas. El diseño del elemento deberá permitir la aproximación de una persona usuaria de silla de ruedas. Los dispositivos manipulables estarán a una altura comprendida entre 0,70 m y 1,20 m.

Los aparatos lúdico-recreativos, como juegos infantiles, podrán excepcionalmente autorizarse cuando la conformación del concreto espacio público donde pretenda instalarse así lo permita, por no interferir el paso peatonal mínimo de 2 metros.

EK\CV GAO-I-2023-00145

*13. artikulua. Merkataritza-establezimenduak hedatzea.*

Merkataritza-establezimenduen jarduera espazio publikora hedatu ahal izango da bide publikoa jarduera komertzial bati lotutako elementuekin okupatuz, esate baterako salmentan dauden artikuluen erakusketekin, publizitate-elementuekin, eta abarrekin. Okupazio horiek Udalak aurrez baimena ematearen mendekoak izango dira, eta honek baimena emateko neurtu beharko du dagokion espazio publikoak irisgarritasunaren ikuspegitik horretarako aukera ematen duen; halaber, Udalak bermatu beharko du gutxienez 2 m-ko zabalera duen oinezkoentzako ibilbide irisgarri bat egotea, baita zatiaren okupazioarekin erlazionatutako jarduera komertzialak nahitaezko udal-baimena izatea ere.

Okupazioa merkataritza-establezimenduaren funtzionamendu-ordutegira mugatuko da, eta antolamendu estetiko egokia mantendu beharko du, baita pertsona guztiei irisgarritasuna bermatuko dien eta oinezkoentzako ibilbide irisgarriei eragozpenak edo distortsioak eragingo ez dizkien antolamendu zehatza ere.

Okupazio hauei ordenantza honen hirugarren tituluko 7. eta 10. artikuluak aplikatuko zaizkie jarritako elementuen kokapenari eta elementu horiek kentzeari dagokionez.

Kasu bakoitzean, dagokion bide publikoa okupatzeagatiko tasak aplikatuko zaizkie okupazio horiei.

LAUGARREN TITULUA

LIZENTZIAK IZAPIDETZEA ETA KUDEATZEA

*14. artikulua. Organo eskuduna.*

Lizentziak emateko organo eskuduna Eibarko Udal Alkatetza da, eta horrek Gobernu Batzarra eskuordetu ahal izango du, indarrean dagoen araudiari jarraiki. Prozedura zehatzaileei hasiera emateko eta horiek ebazteko eskumena duen agintaritza lizentziak emateko eskumena esleituta duen agintaritza bera izango da.

*15. artikulua. Prozedura.*

Instalazio berria egiteko edo dagoeneko emanda dagoen lizentzia bat aldatzeko aurkeztuko diren lizentzia-eskaerak dokumentu hauekin batera aurkeztu beharko dira:

— Establezimenduaren funtzionamendu-lizentziaren fotokopia edo hori emateko espedientearen erreferentzia.

— Jarri nahi diren hiri-altzarien elementu homologatuen zerrenda, horien kopurua espresuki adieraziz.

— Terrazaren kokapen-planoa 1:1.000 eta 1:500 arteko eskalan, okupatuko den azalera, espaloiaren zabalera, iskinetarainoko distantzia, autobus-geltokiak, kioskoak eta bertan dauden hiri-altzarien gainerako elementuak adierazita dituena.

— Xehetasun-planoa 1:200 eta 1:100 arteko eskalan, jarri nahi diren elementu guztiak adieraziz, baita horien mota, kopurua, dimentsioak, kokapena eta okupatuko duten azalera osoa ere adieraziz, eta xehetasun horiek guztiek planoan islatuta geratu beharko dute.

— Terrazako elementuak biltegiratzeko dagoen espazioaren justifikazioa.

*16. artikulua. Ebazpena.*

Eskaera Ordenantza honek eskatutako baldintzetan aurkeztuta, eta txosten tekniko eta juridikoa egin ondoren, udal-organo eskudunak ebatziko du legeak ezarritako epearen barnean.

Lizentzia-dokumentuan finkatuko dira instalazioaren eta elementu lagungarrien, okupatu beharreko azaleraren, mahaien eta aulkien kopuruen, indarraldiaren eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako berezitasunen baldintzak.

*Artículo 13. Extensiones de establecimientos comerciales.*

Las extensiones de actividad de establecimientos comerciales al espacio público podrán consistir bien en la exposición de artículos en venta, de elementos de propaganda u otro tipo de ocupaciones de la vía pública vinculadas a una actividad comercial. Estas ocupaciones se sujetan a previa autorización por parte del Ayuntamiento, quien para otorgarla deberá ponderar el espacio público afectado así lo permite, por razón de accesibilidad, garantizando un itinerario peatonal accesible de anchura mínima de 2 m y que la actividad comercial a que se vincula la ocupación de la porción goce de la preceptiva autorización municipal.

La ocupación sólo podrá mantenerse durante el horario de funcionamiento del establecimiento comercial, y deberá mantener una adecuada composición estética y una rigurosa disposición que garantice la accesibilidad de todas las personas a la misma y no implique molestias o distorsiones de los itinerarios peatonales accesibles.

Serán de aplicación a estas ocupaciones los artículos 7 y 10 del título tercero de esta ordenanza en lo relativo a ubicación y retirada de los elementos instalados.

Estas ocupaciones estarán sujetas la correspondiente tasa por ocupación de vía pública.

TÍTULO CUARTO

TRAMITACIÓN Y GESTIÓN DE LAS LICENCIAS

*Artículo 14. Órgano competente.*

El órgano competente para la concesión de las licencias es la Alcaldía del Ayuntamiento de Eibar, quien podrá delegar en la Junta de Gobierno, conforme a la legislación vigente. La autoridad competente para la incoación y resolución de los procedimientos sancionadores será la misma que tenga atribuida la del otorgamiento de las licencias.

*Artículo 15. Procedimiento.*

Las solicitudes de licencia que se presenten para una nueva instalación o para la modificación de una licencia ya concedida irán acompañadas de la siguiente documentación:

— Fotocopia de la licencia de funcionamiento del establecimiento o referencia a su expediente de concesión.

— Relación de los elementos homologados de mobiliario urbano que se pretendan instalar, con indicación expresa de su número.

— Plano de situación de la terraza a escala entre 1:1.000 o 1:500 en el que se reflejen la superficie a ocupar, ancho de acera, distancia a las esquinas, paradas de autobuses, quioscos, así como los elementos de mobiliario urbano existentes.

— Plano de detalle a escala entre 1:200 y 1:100, con indicación de todos los elementos que se pretende instalar, así como su clase, número, dimensiones, total de superficie a ocupar y colocación de los mismos debiendo todo ello quedar reflejado en el plano.

— Justificación del espacio con que se cuenta para almacenar los elementos de la terraza.

*Artículo 16. Resolución.*

Formulada la petición en los términos exigidos en la presente Ordenanza, y previo informe técnico y jurídico, se resolverá por el Órgano Municipal competente en los plazos legalmente establecidos.

En el documento de la licencia se fijarán las condiciones de la instalación y elementos auxiliares, superficie a ocupar, número de mesas y sillas, periodo de vigencia y demás particularidades que se estimen necesarias.

EK\CV GAO-I-2023-00145

Eskatutako lizentzia ematea egokitzat hartzen ez bada edo eman beharreko baimenak dagoeneko eskatu denarekiko aldaketarik badakar, Udalak entzunaldia emango dio eskatzaileari, egoki iruditzen zaiona alega dezan.

Terrazaren lizentzia emateko, ezinbestekoa izango da establezimendu eskatzaileak ez edukitzea inolako zerga-zorrik Udalarekin.

Lizentzia urte osokoa izango da eta berdin dio eskaera urteko zein hiletan egiten den. Hurrengo jardunaldietarako, besterik gabe berriztatuko da hasierako lizentzia hartan emandako denbora berbererako, aldez aurretik tasa ordaindu dela egiaztatuta. Lizentzia-berritze hori egingo da baldin eta ez bada aldaketarik egiten terrazaren kokapenean eta elementuetan, edo lokalaren titulartasunean; eta, bi aldeetako batek ere, udal administrazioak edo titularrak, ez badu berritzearen kontrako borondatea adierazten baimendutako epea hasi baino hamabost egun lehenago.

Udal Administrazioak lizentzia-berritzearen kontrako asmoa adieraziko du ondoko kasu hauetan:

— Terrazaren funtzionamenduaren ondorioz eragozpen edo kalte larriak daudela ondorioztatzen dituzten prozedurak hasi direnean.

— Lizentziaren baldintzak edo Ordenantza honek ezarritako baldintzak ez direla bete agerian geratu denean.

— Aurreko urteari dagokion tasa ordaindu ez denean.

Terrazak instalatzeko eta ustiatzeko lizentziak establezimenduaren jarduera-lizentziarekin bakarrik eskualdatu ahal izango dira.

Ez da eskualdaketarik baimenduko, baldin eta jabari publikoaren okupazioari dagokion tasa edo establezimenduari ezarritako isunak ez badira ordaindu.

Eskualdaketa jakinarazten ez bada, aurreko titularra eta titular berria, biak izango dira gertatzen diren kalteen eta egin daitezkeen arau-hausteen erantzule solidarioak.

17. artikulua Ezeztapena.

Edonola ere, ordenantza honetan aurreikusitako edozein instalazio lurzoru publikoan jartzeko lizentziak prekarioan emango dira, bertan adierazitako preskripzioak eta neurri zuzentzaileak betetzearen mende egongo dira eta horiek betetzen ez badira ezeztatu ahal izango dira. Ezeztatzea erabakitzen bada, une horretan bertan eskatuko zaio instalazioaren titularrari adieraziko zaion epean kentzeko, horrela egiten ez badu udal-zerbitzuek bere kontura egingo dutela ohartaraziz.

BOSGARREN TITULUA

ORDENANTZA EZ BETETZEA: ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

*18. artikulua. Lizentziarik gabeko instalazioak.*

Udalaren jabari publikoko lursailetan nahitaezko lizentziarik gabe jartzen diren instalazioak berehala kenduko dituzte udal-zerbitzuek, interesatuari alkateak emandako jakinarazpenaz gain inolako beste abisurik eman gabe, eta alkateak ondasunak eta horien erabilera komun orokorra ofizioz berreskuratzeko ahalmena erabiliko du. Aipatutako jakinarazpena udal-zerbitzuek ebazpena materialki betearazten duten ekintza berean egin ahal izango da.

Si no se considerase oportuna la concesión de la licencia solicitada o si la autorización a conceder supusiera una variación con respecto a lo solicitado, el Ayuntamiento dará audiencia al/a la solicitante, a fin de que éste/a pueda alegar lo que estime oportuno.

Para la concesión de la licencia de terraza será condición indispensable que el establecimiento solicitante no mantenga deuda tributaria de ningún tipo con el Ayuntamiento.

La licencia será anual coincidiendo con el año natural, con independencia del mes del año en que se curse la petición, renovándose automáticamente para los ejercicios siguientes por igual período que el concedido inicialmente, previa comprobación del pago de la tasa. Dicha renovación tendrá lugar si no se produce modificación alguna en la ubicación y en los elementos instalados en la terraza, o en la titularidad del local afectado, y si ninguna de ambas partes, Administración municipal o titular, comunica quince días antes del inicio del período autorizado su voluntad contraria a la renovación.

La Administración municipal manifestará su voluntad contraria a la renovación en los siguientes supuestos:

— Cuando se hayan iniciado procedimientos de los que se desprenda la existencia de graves molestias o perjuicios derivados del funcionamiento de la terraza.

— Cuando se haya apreciado un incumplimiento patente de las condiciones de la licencia o de la presente Ordenanza.

— En los casos de falta de pago de la tasa correspondiente del ejercicio anterior.

Las licencias para la instalación y explotación de terrazas solo serán transmisibles con la licencia de actividad del establecimiento al que están asociadas.

No se autorizará la transmisión si existiese impago de la tasa correspondiente a la ocupación del dominio público o de las multas impuestas, al establecimiento.

Mientras no se comunique la transmisión, anterior y nuevo titular, serán responsables solidarios de los daños que se produzcan y de las infracciones que se puedan cometer.

*Artículo 17. Revocación.*

En todo caso, las licencias que se otorguen para la implantación de cualquier instalación prevista en esta Ordenanza sobre suelo público lo serán a precario y condicionadas al cumplimiento de las prescripciones y medidas correctoras establecidas en la misma, pudiendo disponerse su revocación en caso de incumplimiento. De acordarse ésta, se requerirá en el mismo acto al titular de la instalación para que proceda a su retirada en el plazo que se indique, con apercibimiento de que, en caso de incumplimiento, se dispondrá la realización a su costa por los servicios municipales.

TÍTULO QUINTO

INCUMPLIMIENTO DE LA ORDENANZA: INFRACCIONES Y SANCIONES

*Artículo 18. Instalaciones sin licencia.*

Las instalaciones sujetas a esta Ordenanza que se implanten sobre terrenos de dominio público municipal sin la preceptiva licencia serán retiradas de modo inmediato por los servicios municipales sin más aviso que la notificación al interesado de la orden dictada por el Alcalde, el cual actuará en ejercicio de las potestades de recuperación de oficio de los bienes y de su uso común general. Dicha notificación podrá practicarse en el mismo acto de la ejecución material de la resolución, que se llevará a efecto por los servicios municipales.

EK\CV GAO-I-2023-00145

*19. artikulua. Baimendutako elementuak edo azalera gainditzea.*

Aurreko artikuluan ezarritakoa hiri-altzarien elementuei eta beste edozeini aplikatu ahal izango zaie, dagokion baimenean jasota ez dauden edo baimendutako baldintzak gainditzen dituzten soinua eta/edo irudia erreproduzitzeko ekipamenduak eta joko-makinak edo makina banatzaile automatikoak barne. Hori guztia, emandako lizentzia edo dagokion berritzea ezeztatzeko aukerari kalterik egin gabe.

*20. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.*

Ordenantza honetako arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

1) Arau-hauste arinak dira:

a. Instalazioaren edo bere inguruaren apaindura- edo garbitasun-falta.

b. Hasierako zein amaierako ordutegia ez betetzea, orduerditik beherako aldearekin.

c. Lizentzia-dokumentua eta xehetasun-planoa ez aurkeztea eskatzen duten agintaritza-agenteei edo funtzionario eskudunei.

d. Terrazaren zonan edo bide publikoko beste edozein espazio okupatutan produktuak, ontziak edo hondakinak biltegiratzea edo pilatzea.

e. Ordenantza honetan aurreikusitako beste edozein betebehar ez betetzea, arau-hauste larria edo oso larria ez bada.

2) Arau-hauste larriak dira:

a. Urtebeteko epean hiru arau-hauste arin egitea.

b. Hasierako zein amaierako ordutegia ez betetzea, ordu-erdi eta ordubete arteko aldearekin.

c. Lizentzian aurreikusten ez diren hiri-altzarien elementuak jartzea edo altzari horien baimendutako kopuruak gainditzea.

d. Baimendutakoa baino azalera handiagoa okupatzea edo beste mugaketa-baldintza batzuk ez betetzea.

e. Nahitaezko asegururik ez izatea.

f. Bizilagunei edo iragaitzazko bidariei instalazioaren funtzionamendutik eratorritako eragozpen egiaztatuak sortzea.

g. Baimendu gabeko musika-instrumentu zein -ekipamenduak edo bestelako instalazioak jartzea.

h. Baimendutako elementuak egunero kentzeko betebeharra ez betetzea.

3) Arau-hauste oso larriak dira:

a. Urtebeteko epean hiru arau-hauste larri egitea.

b. Terrazak, edo ordenantza honetan araututako bestelako elementuak, baimenik gabe edo baimendutako epetik kanpo jartzea.

c. Instalazioa berehala eteteko agindua ez betetzea.

d. Bizilagunei edo iragaitzazko bidariei instalazioaren funtzionamendutik eratorritako eragozpen egiaztatuak sortzea, ordenantza honetan ezarritako baldintzak behin eta berriro eta modu larrian ez betetzeagatik.

e. Espresuki baimendu gabeko ikuskizun edo emanaldiak egitea.

f. Funtzionarioei edo agintaritza-agenteei begirunerik ez izatea, beren karguari hala dagokiolako esku hartzen dutenean, edo beren ikuskatze-lanak ukatzea edo oztopatzea.

g. Hasierako zein amaierako ordutegia ez betetzea, ordubetetik beherako aldearekin.

*Artículo 19. Exceso de elementos o superficie sobre lo autorizado.*

Lo dispuesto en el artículo anterior será aplicable a los elementos de mobiliario urbano y cualquier otro, incluidos los equipos de reproducción sonora y/o visual y máquinas de juego o expendedoras automáticas, que no estén contemplados en la correspondiente autorización o que excedan de los términos permitidos, ello sin perjuicio de la posible revocación de la licencia otorgada o de la denegación de la renovación correspondiente.

*Artículo 20. Clasificación de las infracciones.*

Las infracciones de esta Ordenanza se clasifican en leves, graves y muy graves.

1) Son infracciones leves:

a. La falta de ornato o limpieza de la instalación o de su entorno.

b. El incumplimiento del horario de inicio o de cierre en menos de media hora.

c. La falta de presentación del documento de licencia y del plano de detalle a los agentes de la autoridad o funcionarios competentes que lo requieran.

d. Almacenar o apilar productos, envases o residuos en la zona de terraza o en cualquier otro espacio ocupado de la vía pública.

e. El incumplimiento de cualquier otra obligación prevista en esta Ordenanza que no sea constitutiva de infracción grave o muy grave.

2) Son infracciones graves:

a. La comisión de tres infracciones leves en un año.

b. El incumplimiento del horario de inicio o de cierre en más de media y menos de una hora.

c. La instalación de elementos de mobiliario urbano no previstos en la licencia o en número mayor de los autorizados.

d. La ocupación de superficie mayor a la autorizada o el incumplimiento de otras condiciones de la delimitación.

e. La carencia del seguro obligatorio.

f. La producción de molestias acreditadas a los vecinos o transeúntes derivadas del funcionamiento de la instalación.

g. La instalación de instrumentos o equipos musicales u otras instalaciones no autorizadas.

h. El incumplimiento de la obligación de retirar los elementos autorizados diariamente.

3) Son infracciones muy graves:

a. La comisión de tres faltas graves en un año.

b. La instalación de terrazas, u otros elementos regulados en esta ordenanza, sin autorización o fuera del período autorizado.

c. El incumplimiento de la orden de suspensión inmediata de la instalación.

d. La producción de molestias graves a los vecinos o transeúntes derivadas del funcionamiento de la instalación por incumplimiento reiterado y grave de las condiciones establecidas en esta ordenanza.

e. La celebración de espectáculos o actuaciones no autorizados de forma expresa.

f. La falta de consideración a los funcionarios o agentes de la autoridad, cuando intervengan por razón de su cargo, o la negativa u obstaculización a su labor inspectora.

g. El incumplimiento del horario de inicio o de cierre en más de una hora.

EK\CV GAO-I-2023-00145

*21. artikulua. Zehapenak.*

Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteek zehapen hauek ekarriko dituzte:

— Arau-hauste arinak 301 eurora arteko isunarekin zigortuko dira.

— Arau-hauste larriak 301,01 eta 902 euro arteko isunarekin zigortuko dira.

— Arau-hauste oso larriak 902,01 eta 1.803 euro arteko isunarekin zigortuko dira.

Arau-hauste oso larriak egiteak desgaikuntza-zehapen erantsia ezartzea ekar dezake, eta zehapen horrek mota honetako lizentziak lortzeko bost urtera arteko desgaikuntza esan nahi du.

*22. artikulua. Erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak.*

Zehapenak modulatzeko ondorengoak hartuko dira kontuan: ea intentzionalitaterik edo errepikatzerik izan den, baita sortutako kalteen izaera, urtebetean izaera bereko beste arau-hauste bat egin izanagatiko berrerortzea (ebazpen irmo bidez horrela deklaratu denean) eta arau-haustea egiteagatik lortutako irabazia ere.

*23. artikulua. Prozedura.*

Zehapenak jartzeak dagokion espedientea instruitzea eskatuko du, eta izapidetzea otsailaren 20ko 2/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoak, ezarritakoarekin bat egingo da.

Espedienteari hasiera emateko erabakiak gerora eman litekeen ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak izan daitezkeen behin-behineko neurriak hartzea agin dezake, legez kanpoko instalazioak kentzea edo horien funtzionamendua etetea besteak beste.

*Xedapen iragankorra.*

Orain arte baimendutako aparkalekuetako terrazak ordenantza honen 4. artikuluan ezarritako baldintzetara egokitu beharko dira. Horretarako, 6 hilabeteko epea izango dute, arau hau indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik; kasu horietan, Eibarko Udalak epe luzeagoa baimendu dezake. Ezarritako epean egokitzen ez bada, baimenaren ezeztapena emango da.

*Artículo 21. Sanciones.*

La comisión de las infracciones previstas en esta Ordenanza llevará aparejada la imposición de las siguientes sanciones:

— Las infracciones leves se sancionarán con multa de hasta 301 euros.

— Las infracciones graves se sancionarán con multa entre 301,01 y 902 euros.

— Las infracciones muy graves se sancionarán con multa entre 902,01 y 1.803 euros.

La comisión de las infracciones muy graves podrá llevar aparejada la imposición de la sanción accesoria de inhabilitación para la obtención de licencias de esta naturaleza por un período de hasta cinco años.

*Artículo 22. Circunstancias modificativas de la responsabilidad.*

Para la modulación de las sanciones se atenderá a la existencia de intencionalidad o reiteración, naturaleza de los perjuicios causados, reincidencia por la comisión en el término de un año de otra infracción de la misma naturaleza cuando así haya sido declarado por resolución firme y al beneficio obtenido con su realización.

*Artículo 23. Procedimiento.*

La imposición de las sanciones requerirá la instrucción del correspondiente expediente, que será tramitada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 2/1998 de 20 de febrero de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma Vasca.

El acuerdo de iniciación podrá ordenar la adopción de medidas provisionales que resulten necesarias para garantizar la eficacia de la resolución que pudiera recaer, tales como la retirada de las instalaciones ilegales o la suspensión de su funcionamiento.

*Disposición transitoria.*

Las terrazas en zonas de estacionamiento autorizadas hasta la fecha deberán adaptarse a los requisitos establecidos en el artículo 4 de la presente ordenanza. Dispondrán para ello de un plazo de 6 meses a contar desde la entrada en vigor de esta norma, salvo casos excepcionales debidamente justificados en los que el Ayuntamiento de Eibar podría autorizar un plazo superior. La no adaptación en el plazo establecido determinará la resolución de la autorización.

EK\CV GAO-I-2023-00145